



# **GUITRANS**

## **Frantziako nekazarien grebak nazioarteko garraioa geldiarazi du**

Nazioarteko garraioa egiten duten Gipuzkoako garraio-enpresak eta Europatik datorren salgaiaren mende daudenak ere, salgaien segurtasunari eta enpresen ekonomiari eragiten dien egoera larria pairatzen ari dira egunotan. Nekazari frantziarrak istiluak eta mozketak egiten ari dira errepide eta azpiegitura kritikoetan, eta, kasu batzuetan, beren mugetan trabatuta dauden atzerriko ibilgailuei erasotzen.

Egoera gogortu egin da atzo, urtarrilak 25, ostegunaz geroztik, eta une honetan nazioarteko flotak daude, erabat geldirik eta beste batzuk % 70ean funtzionatzen. Egoera hau luzatzen bada, enpresek jasango duten eragina izugarria izan daiteke.

Kaltetutako garraio-enpresek jakinarazi digutenez, jendarmeek jarrera pasiboa hartzen dute, errepideetan harrapatuta dauden gidariak izaten dituzten arazoak alde batera utzita, eta jarrera hori oso bestelakoa da gatazka mugaren alde honetan dagoenean. Gidariak salatu dutenez, agintariek behartuta takografoaren etenaldia hausten dutela egiaztatzen duten ziurtagiriak ere ez dituzte sinatzen. Ez dago laguntzeko asmoriki..

Beren ibilbidea jarraitzea lortzen duten garraio apurrek ordezeko bideak hartu behar dituzte, bezeroei eragin ezin dizkieten kostu handiagoekin, eta, gainera, ibilgailuetan matxura eta zikinkeria gehiago sortzen dituzten bide ez-konbentzionaletatik ibiliz.

Ziur gaude nekazariak badituztela beren aldarrikapenak aurrera eramateko arrazoiak, baina kontuan izan behar dute gure sektoreak ere egoera zail bat bizi duela eta ez garela arazoaren parte.

Gaur, urtarrilaren 26an, Gabriel Attal lehen ministroak hainbat neurri aurkeztuko dizkie nekazariei, akordio batera iristeko eta mobilizazio horiek bertan behera uzteko.

Ez dakigu zein izango den emaitza, baina, nolana ere, Espainiako eta Frantziako agintariei gai honetan esku har dezatela eskatzen diegu. Frantziatik igarotzen diren gidariak eta salgaiak arriskurik ez dutela eta helmugara iritsi ahal izango direla bermatzeko; izan ere, krisian dagoen sektore batean galera gehiago gehitzeak ez dio inori lagunduko.